



# IBARRAKO GARAGARDO FESTAN TOPA

Etzi irekiko ditu ateak, igandera arte; seigarren aldiz antolatu dute eta bolondresak omenduko dituzte aurten 7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2009-05-05

VIIURTEA 1.693.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Asteasuko Santa Kruz jaien barruan herri kirolak izan ziren eta jendetza bildu zen ikuskizunaz gozatzeraz. IYUYA URRUTIA

## DATORREN URTERA ARTE AGURTU DITUZTE SANTA KRUZ JAIK

**ASTEASU-OREXA** Bi herrietan balorazio «oso ona» egin dute jaien inguruan; jende ugari bildu da eta giro ona izan da nagusi bietan 6

## 201 lagunek hartu dute parte Ibilaldi Neurtuan

**BERASTEGI** «Oso gustura» daude Basurdekoak parte-hartzea «uste baino altuagoa» izan zelako 6



Behelaina izan bazen ere, oro har eguraldi ona izan zen; Sei ordu eta erdi eta zortzi inguru behar izan zituzten mendizaleek ibilbidea burutzeko. IYUYA URRUTIA

## Irurako Kultur Astean, ekitaldiak adin guztientzat 3

**PREST**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**UNIBERTSITATEA BIZITZEROKO PREST!**

**ATE IREKIAK**

etorriko zarela jakinarazi!

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**MAIATZAK 7 - 17:30** osteguna | **MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna *2.zikloa*  
ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

### ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**MAIATZAK 14 - 18:00** osteguna  
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

**MAIATZAK 7 - 18:00** osteguna *2.zikloa* | **MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna  
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**MAIATZAK 9 - 11:00** larunbata *2.zikloa*  
ESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

**Laburrak****Anai-arreben arteko harremanaz, hitzaldia, gaur**

**GIZARTEA** ● Gaurko, Samaniego ikastetxeak hitzaldia antolatu du bertako ikasleen gurasoentzat. Hau, Haur Hezkuntzako eraikineko erabilera anitzeko gelan izango da 16:30ean. Anai-arreben arteko harremanak: emozioak, jelsia... gaiaren inguruan mintzatu da Maria Jesus Uranga terapeuta familiarra. Saioa gazteleraz izango da.

**Maiatza Gorriaren baitan, hitzaldiak eta dokumentala**

**GIZARTEA** ● Sanblaspioko Gazte Asanbladak antolatutako Maiatza Gorriaren baitan, hurrengo egunean latinoamerika eta arrazakeria izango dira aztergai Otsabi elkartean. Hala, ostiralean, 19:00etatik aurrera, Komite Internazionalistek kideek Kolonbiako egoera azalduko dute eta Latinoamerikar nahiz Palestinara antolatzen dituzten brigaden aurkezpena egingo dute. Bestetik, hilaren 9an, 18:30ean *Voces contra la globalización* dokumentalaren zati bat ikusgai izango da, festatxo bat egingo dute arabiar musikarekin.

**Telefonoak****Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispen:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930**GARRAIOAK.****Refre:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leitzaranz autob.:** 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Lurramendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Era guztietako kultur ekintzak izango dira hilabete honetan, tolosarrentzat

**Kultura** » Aste honetan ekitaldien baitan, haurren bertso saioak, historia ikastaroa eta antzerki emanaldiak izango dira.

**ERREDAKZIOA**

Udaberri nahasi honetan giroa berotzeko hainbat eta hainbat ekitaldi izango dira. Udako oporrak iristeko gero eta gutxiago falta da, eta motorrak berotzen hasteko, hainbat jarduerak eta ekitaldi izango dira hil honetan Tolosan. Ohi bezala, herriko elkarte ezberdinek nahiz Udalak antolatu dituzte gauzak, jendea aspertu ez dadin eta aisi tarte politikak eskaintzeko.

Aiz-Orratz Veleta elkarteak 75 urte betetzen ditu aurtan, eta urteurren berezi hau ospatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte aurtengorako. Horietako batzuk datozen asteetan izango dira. Esaterako, jantzi eta argazki erakusketa nahiz batel ikuskizuna. Mundua Tolosan zikloaren baitan, nazioartean ospe handia duen piano-jotzaile belgikar bat entzuteko aukera izango da, Wim Mertens hain zuzen ere. Bestalde, bigarren aldiz, tolosar gazteek antolatuta, Txapin Festa izango izango da hilaren 16an. Jai honen baitan, gazte lokaletatik poteoa, Mulamborekin perkusio ikastaroa eta kalejira, herri bazkaria, jokuak eta kontzertuak izango dira.

**Aranburu jauregia**

■ **'Kaleidoskopioa +12'**. Mariano Arsuagaren erakusketa ikusgai izango da hilaren 16ra arte.

■ **'Agua tinta'**. Naturaldia jardunaldien baitan antolatutako *El Rotoren* erakusketa hilaren 17ra arte egongo da jarrita.

■ **Ruiz de Eguino.** Hilaren 22tik aurrera pintura eta eskultura erakusketa berria izango da ikusgai eta ekainaren 27ra arte egongo da zabalik.

**Kultur Etxea**

■ **Munduari bira jolasean.** Lehen Hezkuntzako bigarren mailako neska-mutilei munduan zehar jolasteko gonbitea da hau. Tolosaldeko Immigrazio sailak antolatu du ekimena gauako eta biharko.

■ **'Barre egiten ikastea bizitzen ikastea da' hitzaldia.** Hilaren 7an izango da, 20:00etan, Escuela de la risa inteligentek antolatuta.

■ **Tolosari buruzko historia apunteak.** Aulas Kutxak antolatuta, hilaren 7an eta 14an izango dira saioak. Ohi bezala 18:00etatik 19:00etara izango dira.

■ **Jantzi eta argazki erakusketa.** Aiz-Orratz/Veleta elkarteak bere 75. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekimenen baitan dago hau. Hilaren 12tik 20ra izango da.



Mundua Tolosan zikloaren baitan, Wim Mertens piano-jotzailearen emanaldia izango da hilaren 29an. HITZA

- **Odo ateratzea.** Odol-emaielen hileroko hitzordua, oraingoan, maiatzaren 18an izango da.
- **Tolosalde Sahararekin elkar-teak antolatutako hitzaldia.** Hilaren 19an izango da.
- **Amalur jardunaldiak.** Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta, hilaren 27tik 29ra bitartean izango dira.

**Leidor aretoa**

- **Eskolarteko Bertso saioak.** Gipuzkoako Bertsozale elkarteak antolatuta, hilaren 7an, 17an eta 27an izango dira saioak, 17:00etatik 18:30era bitartean.
- **'Atejoka' antzerkia.** Iker Galar-tza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozaren antzezlanak ikusgai izango da hilaren 9an, 20:30ean.
- **Tinkoren egitaraua.** Zinea euskaraz izango da ikasleentzat, hilaren 11n, 09:00etan.
- **Txirri, Mirri eta Txiribito junior.** *Bihurrikeriak* emanaldia aurrerakotzeko dute hilaren 23an, 17:00etan.
- **Udaberri dantza taldekoen eta Udai Musika Eskolako ikasleen bandaren emanaldia.** Hilaren 24an izango da, 12:00etan.
- **Wim Mertens.** Mundua Tolosan zikloaren baitan hilaren 29an, kontzertua izango da, 20:30ean.

**Zinema**

- **Maiatzak 7, osteguna.** Zine-Forumean, jatorrizko bertsoan ikusgai izango da *La teta asustada* filma. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.
- **Maiatzak 8, ostirala.** 22:30ean, *Gran torino* filma ikusgai izango da.
- **Maiatzak 10, igandea.** 17:00etan, haurrei zuzenduta, *Animal Chanel* filma eskainiko dute 17:00etan. 19:30ean eta 22:00etan berriz, *Gran Torino* eskainiko dute.
- **Maiatzak 11, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *Gran To-*

*rino* filma ikusteko aukera izango da.

- **Maiatzak 14, osteguna.** Zine-Forumean, *La cuestion humana* filma ikusgai. Bi saio izango dira, bata 19:15ean eta bestea 21:45ean.
- **Maiatzak 15, ostirala.** 22:30ean, *Los abrazos rotos* eskainiko dute.
- **Maiatzak 16, larunbata.** Haurren saioan, 17:00etan, *Hula girls* izango da ikusgai. Iluntzekoan, 19:30ekoan, *Los abrazos rotos* eta 22:30ekoan, *The visitor*.
- **Maiatzak 17, igandea.** Haurrei zuzenduta, *Hula girl* filma ikusgai izango da 17:00etan. 19:30ean, *The visitor* eskainiko dute, eta 22:00etan, *Los abrazos rotos*.
- **Maiatzak 18, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *The visitor* filma izango da ikusgai.

**Besterik**

- **Ipuin txokoa.** 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta beraien gurasoentzat, hilaren 7an izango da emanaldia. Errota Haur Liburutegian izango da hau, 18:00etan.
- **15. Musikaria.** Udai Musika Eskolak antolatutako aste musikala izango da hilaren 17tik 23ra.



Larunbat honetan, 'Atejoka' antzezlanak ikusgai izango da Leidorren. HITZA

- **Juan Garmendia Larrañagaren lan osoen 10. alearen aurkezpena.** Eusko Ikaskuntzak antolatuta, hilaren 14an izango da, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.
- **Txapin Festa.** Gazteen festa hilaren 16an izango da.
- **Antonio Zabalarri omenaldia.** Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Udaletxeko Batzar Aretoan izango da hilaren 22an.
- **Tolosako Musika Bandaren kontzertua.** Zerkausian izango da hilaren 23an, 19:30etik aurrera.
- **Loreak Tolosan.** Azokak eta Merkatuak sailak antolatuta hilaren 30etik ekainaren 7ra bitartean izango da.
- **Bisiguaren festa.** Txinparta eta Aiz-Orratz elkarten artean antolatu dute ekimena eta hilaren 30 eta 31n izango da.
- **Batel txapelketa.** Aiz-Orratz elkartearen 75. urteurrena dela eta, hilaren 31n izango da.
- **Tolosa Kantari.** Hilabete honen azken larunbatean, hau da, 30ean, Agirre doktoarearen plazatik abiatuta kantuan ibiliko dira Alde Zaharretik barrena. Ohi bezala, 12:00etan hasiko dira abesten.

## Adin guztientzako ekitaldiak antolatu dituzte Kultur Asterako

**Irura** » Ostiralean emango diote jarraipena ekitaldiei eta hilaren 17ra arte egunero egongo da zereginik herrian.

### ERREDAKZIOA

Irurako Kultur Astearen lehen ekitaldia pasatu berri den asteburuan izan bazen ere, ostiral honean emango zaio jarraipena eta hilaren 17ra arte iraungo du. Eguneoro ekitaldiaren bat izango da eta besteak beste, hilaren 16an Ikasto-

laren Eguna ospatuko dute hainbat ekitaldirekin.

Haurrek, beti bezala, ekitaldi ugari izango dituzte. Jubilatuek ere beraientzako bereziki prestatutakoak izango dituzte. Ikastaroa ere izango dira, sendabelarrei buruzkoa. Hain justu, gurasoak sendabelarren ikastaroan dauden bitartean ludoteka zerbitzua izango da.

Beste ekitaldi bereziak frontoiaren aurkezpen herrikoia eta Lore Amenabar akordeoi-jole gazteirurarrari egingo dioten omenaldia izango dira.



Poxpolo ta Mokolo. E. EZBIZA

### » EGITARAUA

#### Maiatzak 8, ostirala

■ **22:30.** Taberna eta elkartearen arteko Mus Txapelketaren final-laurdena Aizpurua jatetxean.

#### Maiatzak 9, larunbata

■ **17:30.** Frontoiaren aurkezpen herrikoia: herriko neskek eta Gipuzkoako selekzioako emakumeen arteko partidak. Ondoren, luncha eta *Piano bat bertsoan* ikuskizuna.

#### Maiatzak 10, igandea

■ Herri Urrats Iparraldeko ikastolen aldeko jaiaren parte hartzeko deia luzatu dute antolatzaileek.

#### Maiatzak 11, astelehena

■ **17:30.** *Sendabelarrak atzo, gaur eta bihar* ikastaroa plazako areto nagusian.

■ **17:30.** Arratsalde dibertigarria haurrentzat ludoteketan.

#### Maiatzak 12, asteartea

■ **17:00.** Jubilatuen jokoak: bote

eta toka plazan eta mahai-jokoak Zaharren Biltokian.

■ **18:00.** Jon Magic-en magia saioa haurrentzat plazan. Ondoren haurrentzako ikuskizuna Tinarrak antzerki taldearekin.

#### Maiatzak 13, asteazkena

■ **08:30.** Herriko jubilatuen Guardiara irteera.

■ **17:00.** Gaztelekuan logoa pintatzea.

■ **17:30.** *Sendabelarrak atzo, gaur eta bihar* ikastaroa plazako areto nagusian.

#### Maiatzak 14, osteguna

■ **16:45.** Jubilatuen ibilaldi neurtua herriko kaleetan zehar. Ondoren, sari-banaketa eta luncha Zaharren Biltokian.

■ **17:30.** Frontoiaren patinaje ikastaroa haur eta gazteentzat.

#### Maiatzak 15, ostirala

■ **18:00.** Lore Amenabarri ome-

naldia. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia eta dantzariak plazan. Ondoren: merienda.

■ **18:00.** 22:30: taberna eta elkartearen arteko Mus Txapelketaren finalerdiak eta finala Zaharretxe tabernan. Jarraian sari-banaketa.

#### Maiatzak 16, larunbata Ikastolaren Eguna

■ **11:30.** Txistulariek kalejira herriko plazan.

■ **12:00.** Haur Hezkuntzako ikasleen dantza ikuskizuna.

■ **12:30.** Lehen Hezkuntzako ikasleen eta gurasoen arteko jolasak.

■ **14:00.** Bazkaria. Jarraian: euskal abestiak abestuko dituzte.

■ **18:00.** Poxpolo ta Mokoloren *Mekaxis-Mariaxi* emanaldia frontoian.

#### Maiatzak 17, igandea

■ **18:00.** 10:30-13:00 eta 15:30-17:30: Xake txapelketa plazako areto nagusian.

## Lagun ugari bildu dira beste behin Andantza mendiaren egunean

**Zizurkil** » Giro ona izan zuten bertara joan zirenek eta haur eta heldu askok parte hartu zuten antolatutako jolasetan.

### ERREDAKZIOA

Maiatzaren lehen igandean, beste behin, Andatza Eguna ospatu zuten izen bereko mendian zizurkildarrek eta usurbildarrek. Bi herrietako lagun ugari igo ziren bertara eta eguzkia goizean zehar azaldu ez bazen ere, ateri egon zen eta egindako ekitaldiekin gozatu ahal izan zuten bertara joan zirenek.

Giro ona izan zen eta jende asko zegoen 11:00etan usurbildarrek

urtero bezala taberna ireki zutenean Bertan pintxoak eta salda haritzeko aukera izan zuten Andatzara igotakoek. Eguerdialdera egindako haurrentzako eta helduentzako jolasetan ere parte hartze handia izan zen.

14:00ak aldera pixkanaka jendea Andatzatik jaisten hasi zen eta orduan ateraziren lehen eguzki izpiak. Jende ugari izan bazen ere, dirudienez gero eta zizurkildar guxtiago animatzen dira ekitaldi horretara joaten.

### Bertsolariak eta dantzariak

Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, gaur beste ekitaldi bat izango da. Zizurkilgo haur bertsolari eta dantzariek emanaldia egingo dute 18:00etan Atxulondon.

## Denboraren trukaketari buruzko hitzaldiak antolatzen ari dira

**Aiztondo** » Larraulen egingo dute bihar; «hartu denbora behar duzunean eta eman ahal duzunean» esaldiak definitzen du.

### ERREDAKZIOA

Denboraren trukaketaren inguruko hitzaldiak antolatzen ari da Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea. Bihar, esaterako, Larraulen egingo dute, 17:30ean liburutegian. Esaldi batean definitzen dute denboraren trukea zer den: «Hartu denbora behar duzunean eta eman denbora ahal duzunean».

Modu honetara, diruan oinarritu beharrean, denbora edo bestela esanda, lan-ordua aintzat hartzen du trukatzeko sistema horrek. Bakioztaren astia modu berdinean trukatzeko prest dauden pertsona helduentzat pentsatuta dago sistema hau. Eskaintzen den zerbitzua

edozein delarik ere, denboraren trukean egindako guztiak balio du berdin, hau da, egiten ematen duzun denbora.

Mankomunitatek kazaltzen dutenez, funtzionamendua oso errezia da: eguneroko beharrei erantzuteko laguntza jasotzen da eta, trukean, zerbitzua jaso duenak erabilitako denbora gordetzen du beste batzuei eskaintzeko.

Adibide bat hobeto ulertzeko trukatzeko sistema hori: demagun etxeko edo baserriko familia osoa oporretara doala. Gutunak jaso gabe, landareak ureztatu gabe gelditzen dira, baratza ezer egin gabe... Denboraren trukearen bitartez, pertsona batek lan hori egingo beharrean, denbora edo bestela esanda, lan-ordua aintzat hartzen du trukatzeko sistema horrek. Bakioztaren astia modu berdinean trukatzeko prest dauden pertsona helduentzat pentsatuta dago sistema hau. Eskaintzen den zerbitzua

### @ Hitza Argazki Lehiaketa.

Aste Santuetako oporraldien inguruan HITZAK antolatutako Argazki Lehiaketaren zortzi finalistak aukeratuta daude. Webgunean ikusgai daude zein diren finalista horiek. Orain harpidedunei dagokie irabazlea aukeratzeko. Botoa emateko harpidedun kodea izatea beharrezkoa da eta *tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info* helbidera idaztea edo 943 65 56 95 telefono zenbakira deitzea da horretarako bidea.

**www.tolosaldeko-hitza.info**

**Zuzenketa.** Maiatzaren 3ko HITZAREN alean agertu zen Anoetako Gaztetxeak 10. urtemugaren harira egindako ekitaldietako batean presoen argazkiak jarri zirela. Anoetako Udaletik jasotako ohar batean azaldu dutenez, ekitaldia egin aurretik, «Ertzaintzak deitu zuen esanaz hori ezin zitekeela egin, delitua zela eta horrelako ekitaldirik ez zutela onartuko». Gazte Asanbladakoekin hitz egin zuen Udalak eta «inolako arazorik egin ez zedin» erabaki zuten ekitaldia ez zela egingo eta ez zen egingo.

## Laburrak

### Haur eskolan izena emateko epea zabalik

**ALKIZA** » Herriko haur eskolan izena emateko epea irekita dago hilaren 15era arte, irailean eta urrian hasi behar dutenentzat. Izena emateko epea berriro irekiko da beranduago, urtarilean hasi nahi dutenentzat. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera zein haur eskolara jo dezake.

### San Isidroko argazki rallyan parte hartzeko aukera

**ALKIZA** » San Isidro Kultur Asteko argazki rallyan parte hartu nahi dutenek Elizegi eta Ostatu tabernetan jarrita egingo diren zerrerdetan izena eman behar dute. Zazpi euro ordaindu behar dute 12 urte artekoek eta hamasei euro adin hori baino gehiago dutenek. Izena emateko azken eguna bihar da.

### Aiztondoko II. Jubilatuen Eguna hilaren 24an

**ALKIZA** » Hilaren 24an Aiztondoko II. Jubilatuen Eguna ospatuko da. 10:00etan meza nagusia izango da eta 11:30ean toka jokoa. Bazkaria 14:00etan izango da, soinu-joleek alaituta. Prezioa 23 euroko da eta izena emateko epea hilaren 11n bukatzen da eta Aiztondoko bulegoetan egin behar da, 943 69 39 30 zenbakian. Alkizan ordaintzeko azken eguna hilaren 11n izango da, astelehena, 17:30ean.

### Begiraleak behar dira herriko udalekuetarako

**VILLABONA** » Aurtengo Udan Jolasen udalekuetarako begiraleak behar ditu Villabonako Udalak. Euskaraz ondo jakitea eta 18 urte betetuz izatea dira baldintzak. Izena udaletxean eman behar da hilaren 19a baino lehen.

### Afaria antolatuta du Udalak San Isidro Egunean

**ALKIZA** » San Isidro eguna dela eta, afaria antolatuta du Alkizako Udalak hilaren 15ean, 21:00etan, Ostatu jatetxean. Bazkariaren erdia bakarrik ordaintzeko bi baldintza bete behar dira: Alkizan erroldatuta egotea eta baserri bezala ezagutzen diren etxeetan bizitzea. Etxe bakoitzetik bi pertsonek jasoko dute beharpena. Beste edonork joan nahi izanez gero, guztia ordainduta joan ahal izango da. Deskontuarekin ordaindu beharrezkoa 15 euro izango dira. Izena emateko azken eguna hilaren 12a izango da.

### Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa etzi

**ALKIZA** » Herriko liburutegian ipuin kontaketa izango da etzi, 17:30ean. Pello Añorga ipuin kontalariak emango du saioa.

## TAKE Orbela Taberna 1-0 aurreratu da Ordiziari irabazita

**Tolosa** » Pasa den larunbatean 62-36ko emaitzarekin irabazi zuten; garaipen bakarra behar dute Final Four-erako.

### ERREDAKZIOA

Saskibaloiko TAKE Orbela Tabernako jubenilek Gipuzkoako Txapelketako Final Four-a eskura dute, pasa den larunbatean etxean lehendabiziko puntua eskuratu ondoren. Ordizia taldearen aurka lortu zuten aipatu puntua urdinek, garaipen lasai eta zabal bati esker (62-36). Hala, Gipuzkoako Txapelketarako borrokan pauso garrantzitsua eman dute tolosarrek.

Koldo eta Javi bikoteak zuzentzen duen taldeak iragan ostiralean entrenamendu ona osatu zuen eta horri esker, partidari hasiera bikaina eman zioten, «motibatutik daudenean ohikoa den bezala», taldeko arduradunek adierazi dute. Horren lekuko, lehen 6 mi-

nutuetan lorturiko partziala izan zen, 13-4koa, hain zuzen. Dena den, lehen laurdenaren amaierara partida zabalik iritsi zen, 17-11.

Bigarren laurdenetik aurrera, aldeak asko zabaldu ziren (29-17). Tolosarrak erasoan ez zeuden nahi bezain eroso, baina defentsan egindako lanak Kuzu-renak zer egin ez zekitela utzi zituen.

### Usabalgo kantxan, etxekoak jaun eta jabe

Atsedendititik bueltan, hasiera bikaina eman zioten hirugarren laurdenari, 39-20 aurreratuz eta partida erabakita utziaz. Etxekoek aulkia mugitu zuten, denek jokatzeko aukera izan zezaten, eta «Mendiluren estatistika hobetu nahiak eman zion partidari azken ukitua».

Taldeko arduradunek alde bako bezala, «Zubelzu, Gari eta Reiren suspertzea ikusi» zela aipatu zuten, «datozen partidarako faktore garrantzitsua izango dena». Egun beltza, aldiz, Julenek izan

omen zuten, «jokoan sartzea ez baitzuten lortu kantxan, bai ordea ondorengo ospakizunean».

### Finalerdia, gero eta gertuago

Finalerdiak gero eta gertuago daude baina besoak ez jaitea komeni da, Ordizian ikusiko den aurkariak ez baitu zerikusirik izango pasa den larunbatekoarekin. Gogoratu behar da, herriko junior taldea Ordiziaren aurka ari dela lehiari hiru partidetan onena zein den erabaki eta bide batez Final Four-erako sailkatzeko. Horretarako, lehen faseko sailkapen bikainari esker, zelai faktorea alde dute.

<b>TAKE Orbela</b>	<b>62</b>
<b>Ordizia</b>	<b>36</b>

### ■ TAKE Orbelaren puntuak.

Mendilu (26), Gari (0), DumDum (0), Manolo (3), Alain (8), Reki (3), Zubelzu (6), Julen A. (0), Aza (17), Ioritz (0) eta Julen (3).

### ■ Kantxa. Usabal kiroldegia.

## Javier Urkolaren omenezko VII. Herri Duatloia, larunbatean

**Tolosa** » Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeak antolatuta, hiru mailatan ariko dira korrika eta bizikletaz.

### ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, hilaren 9an, Javier Urkolaren omenezko VII. Herri Duatloia antolatu du Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeak Tolosan, 17:00etatik aurrera.

Irteera Plaza Zaharrean kokatuko dute. Ibilbideari dagokionez, partaideek, hasteko 2 kilometro egin beharko dituzte herriko kaleetan barrena, gero bizikletaz 15 kilometro burutu beharko dituzte Tolosa eta Anoeta artean itzulika eta amaizteko azken korrika saioa izango dute, 1 kilometro eta erdi, Alde Zaharreko kaleetatik.

### Proba (parte-hartzailea)

Antolatzailerik Tolosa eta eskualdeko jende guztia gonbidatzen dute bertan parte hartzera, izan ere, «guztiaren gainetik kutsu herrikoa duen proba izatea» nahi dute. Hala, sari moduan afariak eta antzeakoak zozketatuko dituzte.

Hiru maila izango dira bakarka, bikoteka, eta koadrilaka. Beraz parte hartzeko modua zabal da. Izena eman nahi duenak Shanti

Kirolak denda, eta egunean bertan egin dezake, irteera baino lehen, 5 euroren truke. Informazio gehiago nahi izanez gero [www.tolosaldekotriatloialdea.blogspot.com](http://www.tolosaldekotriatloialdea.blogspot.com) helbidera jo daiteke.

### Iaz berreskuratu zuten Javier Urkolaren omenezko proba

1997an hasi ziren lehen aldiz antolatzen Javier Urkolaren omenezko duatloia eta 2002a arte etenik gabe ospatu zen. Orduan antolatzeari utzi zioten, baina iaz, sei urteko etena eta gero, Mahala-Tolosaldeko TT taldeak proba berririo antolatzea pentsatu zuen eta iazko erantzuna ikusirik aurten ere «ahalegin berezia» egin dute proba ongi ateratzeko.

### » HAINBAT DATU

- **Zer.** Javier Urkolaren omenezko VIII. Herri Duatloia
- **Noiz.** Larunbatean, 17:00etan.
- **Izen-ematea.** Shanti Kirolak denda edo egunean bertan.
- **Prezioa.** 5 euro.
- **Ibilbidea.** Plaza Zaharretik abiatuta, 2 kilometro herriko kaleetan, gero bizikletaz 15 kilometro Tolosa eta Anoeta artean itzulika eta amaizteko 1 kilometro eta erdi korrika, Alde Zaharreko kaleetatik.
- **Mailak.** Hiru maila izango dira bakarka, bikoteka, eta koadrilaka.

# berria

## Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak hautatzeko probarako deialdia

### PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

#### GIPUZKOAN

**Eguna:** maiatzaren 5a.

**Tokia:** Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea.

**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

#### BIZKAIAN

**Eguna:** maiatzaren 5a.

**Tokia:** Leioako campuseko eraikin nagusian, 1. gelan.

**Ordua:** eguerdiko ordu batean.

#### ARABAN

**Eguna:** maiatzaren 6a.

**Tokia:** BERRIaren Gasteizko egoitzan, Bizenta Mogel 6, behe.

**Ordua:** goizeko bederatzita eta erdietan.

#### NAFARROAN

**Eguna:** maiatzaren 5a.

**Tokia:** BERRIaren Iruñeko egoitzan, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezker.

**Ordua:** goizeko hamarretan.

### Probara curriculuma eraman behar da

## Zeberio II.a Master Patxaran Baines-etik kanpo gelditu da

**Elduain** » 33-40ko emaitzarekin galdu zuen erremontistak, Ion bikote zuela, Matxin III-Urrutia bikotearen aurka.

### ERREDAKZIOA

Zeberio II. elduaindarra Master Patxaran Baines Txapelketatik kanpo geratu zen asteburuan, finalerdiko bigarren partida galdu ostean. Joanekeo partidan 25-40 galdu zuen Ion bikotearekin Matxin III-Urrutiak osaturik bikotearen aurka eta, beraz, emaitza hori gainditzera behartuta zegoen. Baina ez zen horrelakorik gertatu eta 33-40ko emaitzarekin galdu zuen Tafallako Ereta pilotalekuan.

Finalerdiko lehen partidari baino joko hobea erakutsi zuen Elduaingoak baina ez zen nahiko izan, aurkariak fin aritu baitziren alor guztietan. Urrutiak, alde bate-

tik, kantxan zuen kokapen ezin hobearrekin aurkariak baino gehiago izan zen; bestalde, Matxin III.ak ondo aprobetxatu zuen bere bikotearen kokapen egoki hori tantoak amaizteko. Honen adierazle, 17 tanto bereak izan ziren.

### Maila altuko partida

Tanto ikusgarriak ikusteko aukera ere izan zuten Ereta pilotalekura gerturatu ziren erremonte zale-tuek. Alde batetik Zeberio II eta Ionek bikain egin zielako aurre irabazleei eta, bestetik, aurrelariak erakustaldia eman zutelako. Matxin III-Urrutiak 25. puntua egin zutenetik Elduaingoak ez zituen aukera errealki izan irabazteko, baina 33-35era ere heldu ziren. Ez zuten amore eman eta, behintzat, maila altua erakutsiz esan zioten agur Patxaran Baines Master Txapelketari. Esan bezala, amaierako markagailuak 33-40 izan zen Elduaingoaren aurka.

## Ugaitz Renobalesek bi final irabazi ditu asteburuan zehar

**Pilota** » Matienakoa eta GRAVNGoa irabazi ditu, seniorren mailan; bestalde, Udaberri Txapelketakoak ere jokatu dira asteburuan.

### ERREDAKZIOA

Pasa berri den asteburuan Matienako Pilota Txapelketa izan da honetan Ugaitz Renobalesek hartu du parte. Parte hartu eta irabazi ere. Renobalesek Loiolarekin osatu zuen bikotea eta oraingo aurkariak Baez II.a eta Landiribar izan ziren. Azken bikote honek 10 tanto egin zituen. Herriko festetan antolatzen duten txapelketa da hau eta kasu honetan, hilaren leian jokatu zuten.

Hasiera batean beste pilotari batek jokatu behar zuen txapelketa, baina alegiarrak jokatu zuen azkenean, ordezko bezala.

Ez da jokatu duen final bakarra, izan ere, GRAVN Txapelketan ere aritu daseniorren mailan, kasu honetan, Koldo Galarragarekin eta hau ere irabazi egin zuten gipuzkoarrek, bizkaitarren kontra. 22-20 bukatu zen norgehiagoka gogorra, oso gogorra. Kasu honetan pilotari aurkariak Beitia eta Ajuria izan ziren, Gasteizko Ogetan, hain zuzen.

16. tantoan gutxi, gorabehera, alegiarrak mina hartu zuen. Eskuinero behatz txikian eta belaunean ere bai. Kolpe galanta hartu zuen. Beraz, Gipuzkoa txapelaldian izan daseniorren mailan.

Txapelketa berean Gallurralde-



Ugaitz Renobales eta Loiola, Matienako finala irabazi ondoren. P. RENOBALDES

Jaka gazteak aritu dira eta finala ere irabazi zuten, kadeteen mailan, hain zuzen ere.

### Udaberri Txapelketakoak

Udaberri Txapelketan Lau T'erdikoan ari dira orain pilotari asko eta hauek izan dira Aurrera-Saiatz pilotako emaitzetakoak bartzuk: kadeteen mailan, Razkin O, Almeida 22; Arregi 22, Garcia O; Murua (Intxurre) 11, Elustondo (Aurrera Saiatz) 22; bukatzeko, Artola (Intxurre) 22, Gurrutxaga (A. Saiatz) 8.

Ibarran jubenilen mailan Landa eta Otaegi (Aurrera Saiatz) aritu ziren eta 22-11 bukatu zuten. Amasan 22-0 bukatu zen Karrera (Behar Zana) eta De la Sotillaren arte-

koa (Aurrera-Saiatz). Ikaztegieta 22-9 bukatu zen Galarraga eta Eolaren artekoa (Aurrera-Saiatz).

Beotibarren seniorren artekoak izan ziren: Biain (A. Saiatz) eta Alberdi aritu ziren eta 22-0 irabazi zuten Biainek. Montielek (A. Saiatz) Aiznabarretari 22-15 irabazi zion. Zabaleta (A. Saiatz) ere Nazabalgaraitu zuen, erraz gainera, 22-0 bukatu baitzen norgehiagoka. Bukatzeko, Galarraga aritu zen, Pikabaren kontra. Biak talde berekoak, eta oraingoan irabazlea, Galarraga izan zen 22-15 bukatuta.

Datorren asteburuan ere, Udaberri Txapelketako hainbat partida jokatu beharko dituzte pilotariak. Tolosaldean ezezik, hemen diko kampo ere.

## Osakidetzaren aurkako UEMAREN mozioa 10 herriko onartu dute jada

### ERREDAKZIOA

Gazteluko, Irurako, Amezketako, Alegia, Elduaingo eta Ikaztegieta-ko udalek ere onartu dute osakidetzaren aurkako mozioa. Tolosaldean, UE MAko hamar Udalek onartu dute mozioa. Mozioa jendaurrean irakurriko dute Villabonako anbulatorioaren aurrean etzi 19:00etan. Agerraldi horretan, UEMAtik kanpoko beste hautetsi batzuek gain, Euskal Herrian Euskarazeko, Hizkuntz Eskubideen Behatorkiko eta LABeko ordezkariak egongo dira.

Horrenbestez, hamar dira mozioarekin bat egin duten udalak, aurreko asteetan Adunako, Anoetako, Orexako eta Altzoko udalek ere onartu baitzuten mozioa.

Mozioaren bidez, UEMAKo udalek Osakidetzaren azken lan deialdia salatu dute. Izan ere, Osakidetzak ez du bermatu eskualdeko anbulatorioetan lanean hasiko diren langile berriak tratua euskaraz emateko gai izango direnik. UEMAKo udalen ikuspuntutik, «hori bereziki larria da udalerriko eskaldunetan». Izan ere, Tolosaldeko anbulatorioetako langileez gain, «asko dira Euskal Herriko

udalerriko eskaldunetan euskara jakin gabe lanean hasiko diren langileak»: Behatorkiaren datuen arabera, udalerriko eskaldunetan bakkarrak, 21 mediku, 13 erizain eta bestelako 5 langile.

### Salatzeko bideak

Mozioaz gain, UEMAKo udalek beste neurri batzuk ere hartu dituzte. Batetik, Osakidetzako arduraduneri, EAEko eta eskualdeko-erri, gutun bidez eskatuko diete herri eskaldunetako eskaldunen hizkuntz eskubideak errespetatu dituzten, eta osasun zerbitzua euskaraz emateko neurriak har ditzaten. Bestetik, dei egingo diete eskalduneri «euskaldun koherente gisa» joka dezaten eta «euskaldunen aurkako hizkuntza politika beren egunerokotasunean sala dezaten», bai osasun zentroetan errekamazioak jarri, bai salaketak Behatorkira bideratuz.

Salaketak Behatorkira bideratzeko bideak hauek dira: UEMAKo udaletxeetara jotzea eta han salaketa jarritia, [www.euskararentelefonoa.org](http://www.euskararentelefonoa.org) webgunea erabiltzea edo 902 194 332 telefono zenbakira deitzea.

## Laburrak

### Herri Urratsera autobusean joateko aukera

**IKAZTEGIETA** » Igandean izango den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Ikaztegieta Udalak. Izena emateko azken eguna bihar da, udaletxean bertan. Autobusa ateratzeko, 22 laguneko taldea osatu beharko da. 8 euro ordaindu beharko da eta goizean goiz abiatuko lirareke.

### Presoen eskubideen aldeko sinadura bilketa

**AMEZKETA** » Amezketan, presoen eskubideen aldeko sinadura bilketa egingen ari dira, joan den astean eta baita honetan zehar ere. Aste-gunez egin daiteke, udaletxean bertan, eta goizez, hau da, 08:00etatik 15:30era bitartean.

### Haur eskolan izena emateko epea zabalik

**ALTZO** » Altzoko haur eskolan izena emateko epea jada zabaldu dute. Hilaren 15era arte dago aukera, Jaurralitzako haur eskolak partzergoak jakitera eman duenez. Lizarbe etxean dagoen Altzoko haur eskolara joan beharra da horretarako, bertan dagoen paper bat betetzera. Bestela ere, telefono zenbakia hau da: 943 65 47 37.

### San Isidro egunean meza eta afaria egingo dituzte

**ALTZO** » Hilaren 15ean, aurten ostirala, San Isidro edo baserritarren eguna ospatzeko, Altzon ere egun hau era berezian gogoratu dute. Izan ere, 21:00etan Altzoko Muñoko Santa Maria elizan meza ospatuko dute eta jarraian, Segoretxen afaria egingo dute, baina izena emango dutenek. Beraz, honetarako joateko, izena eman behar da aurretik, hilaren 13a baino lehen (asteazkena), hain zuzen. 943 65 22 62 telefono zenbakira deituz egin daiteke (Segoretxe).

### Emakumeen egoeraren inguruko ekintzak

**ANOETA** » Anoetako aukera berdintasunerako zerbitzuetatik herrian emakumeen egoeraren inguruko informazioa biltzeko ekintzak egingo dira hilabete honetan zehar. Hauen artean, berdintasun teknikariak herriko zenbait emakumerekin talde txikiak biltzeko asmoa du, hauen interesak, kezak eta beharrak jasotzeko. Bertan parte hartzeko, teknikariarekin harremanetan jar daiteke interesatua, honako telefono zenbakia honetara deituta: 665 71 77 03 edo email bidez: [mirencaao2@hotmail.com](mailto:mirencaao2@hotmail.com).



## Zirkoko karpa gorriaren lilura

**ALBITZUR** » Fischer zirko txikiaren karpa gorria Albizturen izan da asteburu honetan. Estreinakoz, zapaldu zuen herenegun herri txikiko plaza eta ikusmin handia sortu zuen. Ehun lagunetik gora hurbildu ziren, malabare jokoak, pailazoak, magia

saioak, animalien ikuskizunak... gertutik ikusteko. Ordu eta erdi inguru iraun zuen ikuskizunak eta zirko txikia izan arren, era guztieta emanaldiak agertu zituzten. Orain, berriro, traste guztiak bildu eta beste herri batera bideratu dira Fischer familiakoak. ESTI EZEIZA



# Datorren urteko jaien zain, Orexan eta Asteasun

**Santakruzak** » Jende asko bildu da asteburuan Oresa eta Asteasuko jaietan eta bi herrietan «pozik» azaldu dira.

## ERREDAKZIOA

«Pozik» bukatu dituzte Oresako eta Asteasuko Santa Kruz jaiak. Lehenengo herrian ostegunetik igandera bitarte ospatu zituzten eta Asteasun, berriz, larunbatean eta igandean.

Orexako jaietako antolatzaileetako batek esandakoaren arabera, «jaiak berpizten hasi dira», izan ere «lehenoko jaien oinarria ziren erromeriak eta horrelakoak gain-beheran joan dira. Formula berriak bilatzen saiatu gara eta eguneko jaietara ematen eta lortu dugula ematen du. Jende asko bildu da eguneari zehar eginiko ekitaldietan».

## Belaunaldi aldaketa

«Lehen 20 eta 30 urte bitarteko gazte asko zeuden herrian eta haiek gaueko jaiak zuten gogoko, orain berriz, gehiago dira umeak dituzten gurasoak eta haiek ere



Jende asko bildu zen igandean Asteasuko herri kirolak ikustera. I. URRUTIA

nahiago izaten dute egunen zeharrek jaiak», gaineratu du.

Ostiralean umei zuzendutako ekitaldiak izan zituzten eta Lizartzako, Altzoko eta Txaramako umeak ere gerturatu ziren Patxin eta Potxin pailazoak ikustera. «60 ume inguru edo bildu ziren eta 20 bat bakarrik izango ziren orexatarrak», esan du.

## Goitibera Txapelketa

Larunbatean II. Goitibera Txapelketa ere izan zuten eta jende asko bildu zen herrian: «Diru gehiegi

eskatzin ez digun ekitaldia da eta jende asko biltzen da. Iaz ere jende asko etorri zen txapelketara eta pilotuen jarrera ere oso onada. Gazte asko biltzen da gainera».

Guztira 17 goitiberak hartu zuten parte txapelketan eta hiru sari banatu zituzten: azkarrenari, neumatika mailako Sorgintxulok irabazi zuena; gazte azkarrenari, neumatikako Zakotzek eskuratu zuena; eta xebearenari, bizikleta itxurakoak irabazi zuena (Gravity bike mailakoa). Oresarrek ere hartu zuten parte euren goitiberekin



Bigarren urtez antolatu dute goitibera txapelketa Oresako jaietan. R. CALVO

eta ezkontza bat irudikatuz ateratakoek eraman zuten ere beste sari bat. Irabazleek gazte bana eskuratu zuten. Larunbatean herri afaria ere izan zuten eta 190 bat lagun bildu ziren. Igandekoa, aldiz, «egun erlaxatuagoa» izan ohi da, «lasai ikusteko ekitaldiak» biltzen dituztelarik: Lizartzako pilota eskolako umeen eta afizionatuen partidak, bertsolariak... Jaiak Oilarren Igoerarekin amaitu zituzten.

Arestian aipatu moduan Asteasun ere ospatu dituzte santakru-

zak. Haiek ere «oso gustura» daukete egindako jaiekin. «Jende asko gerturatu da eta oso kontentu gaude. Eguraldiak ere lagundu du», diote antolatzaileek.

Urteroko egitaraua egin dute, «ez dugu aldaketarik egin, neurria hartu diogu eta gure ustez nahikoa da auzo txiki baterako».

Jende gehiena igandeko herri kirolen jaialdian bildu zen eta ondorengo sokamuturrean ere gazte asko ibili zen. Simonen Igoerarekin amaitu agurtu zituzten aurtengo santakruzak.

## Uste baino jende gehiago Neuratuan

**Berastegi** » Basurde Kirol Elkarteko kideak oso pozik daude XVII. Ibilaldi Neuratuan parte hartutako jende kopuruarekin.

## ERREDAKZIOA

Guztira 201 pertsonak hartu zuten parte igandean Berastegiko Ibilaldi Neuratuan. Gehienek eguneari bertan eman zuten izena, gainera. «Aurretik 19 lagunek bakarrik eman zuten izena», dio Inaxio Zubillaga Basurde Kirol Elkarteko kideak. Iaz baino parte-hartzaile guxtiago izan ziren, hala ere, izan ere iaz 14 orduetarako entrenatzeko

ere baliatu zuten askok proba. Antolatzailearen hitzetan «dena oso ondo» joan zen eta bi lagunek utzi bazuten ere gainontzekoek bukatu zuten ibilaldia. Sei pertsona-edo «galdua» ere ibili ziren.

Berez proban bost kontrol jarri behar zituzten, baina azkenean Urepeleko tontorrean ez zuten jarri, «behe lainoa zela eta despistatu samar ibili ziren eta parte-hartzaileak». «18 urtetik hasi eta 60 urte bitarteko parte-hartzaileak izan ziren. Leku desberdinekoak ere izan ziren, neska bat Gasteizetik ere etorri zen», gaineratu du Zubillagak. Antolatzaileek, era berean, eskerrak eman nahi dizkiete parte-hartzaile guztiei.



201 pertsonak hartu zuten parte Berastegiko XVII. Ibilaldi Neuratuan. I. URRUTIA

## Lauburu areto-futboleko taldea porrot batekin agurtu zuen denboraldia

**Ibarra** » 2-3 galdu zuen taldeak Kantabriako Peñucas taldearen aurka; denboraldiko azken partida izan zen.

## ERREDAKZIOA

Denboraldiko azken partida jokatu zuen Lauburu taldeak pasa den ostiralean eta 2-3 galdu zuen, gainera, Kantabriako Peñucas taldearen aurka.

Era berean, urte askotan areto-futboleko talde ibartarrean aritutako David Prados jokalariek ere taldea agurtu zuen ostiralean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Talde ezberdinetako kideek eta herritarrek etzi hasiko den Ibarako VI. Garagardo Festa auzetu dute. ASIER IMAZ

## Ibarako Garagardo Festa etzi hasiko da herriko bolondresak omenduz

**Gizartea** » Lau egunetan zehar 250 garagardo kupel, 800 litro edari, 3.500 saltxitxa, 1.500 ukondo... egongo dira.

ASIER IMAZ

Ibarako Garagardo Festa herriko talde desberdinek antolatzen dute «diru laguntzak lortzeko eta auzolanean herri giroa bultzatzeko» helburuarekin.

Azken urteetan, itzalean lanean aritzen diren talde hauek maiatzaren bigarren asterako deialdia egiten dute, eta ibartar askok erantzun egiten du: «Herri giroa azpimarratu nahiko genuke, pozgarria baita inongo norbanako interesik gabe horrenbeste jendek lan egitea, diru guztia herri mugimenduetarako baita. Azken urtean 200 pertsonen lan egin zuten Garagardo Festan; gazteek 16 urte zituzten eta gazteagoek 71 urte».

### Txolarre Irratia ere Festan

Ibarako VI. Garagardo Festa etzi, hilaren 7an, jarriko dute martxan. Karpa irekiera eta zinta mozketa ekitaldia 19:00etan egingo dute. Bertan Garagardo Festan lanean aritu diren herritar bolondresak omenduko dira: «Interes personalik gabe azken urteotan egindako lanarengatik».

Ondorengo egunetan, igandera bitarte, karpak 18:00etan zabalduko dituzte.

Kultur ekitaldien barnean Txolarre Irratiaren Kantu Afaria azpimarratu behar da. Ekimena ostiralean, hilaren 8an, izango da 21:00etan. Larunbatean eta igandean berriz, herriko DJak egongo dira festa jarriz.

### Zer jan eta zer edan

Urtero bezala janariarik eta edaririk ez da faltako lau egunetan zehar: «Bi karpa erraldoi egongo dira jendearentzako egokituak. Batean 700 pertsonen jaten emango zaie

eta bestean, edaria zerbitzatzeko karpak, ehundaka pertsonentzat lekua egongo da».

Edariari dagokionez, kalimotxo dastaketaz gain, aurretik Euskal Herriaren egindako 6 garagardo mota egongo direla jakinarazi dute antolatzaileek: «Kanpokoak, Frantzia, Belgika, Txekia, Ingalaterra eta Herrialde Katalanetakoak, 14 mota izango dira eta bertakoak 6; Gipuzkoakoak eta Xiberokoak. Orotara 250 garagardo kupel eta 800 litro inguru ekarriko dira».

Putzu bilakatu ez dadin hau dena, sabelan oinarri sendoa egiteko ondorengo jakiak egongo dira Ibaran: «Sarrigj patatak, Ibarako piparrak, txorixo platerak, euskal saltxitxak, alemaniar saltxitxa gorri eta txuriak, ukondoa, euskal pastela...».

Azkenik, antolatzaileek herritarrik eta ingurukoak Ibarako VI. Garagardo Festara gonbidatu dituzte, «denon artean jai giro eder bat sortzeko asmoz».

## Azken txanpan



### » Herrira begira

**Aimar Sagastibeltza**  
Futbol jokalaria

**O** harkabean denboraldiko azken fasen sartu ga ta zazpi partidubesteik etzaizkiu falta Liga bukatzeko. Klasiikazioko erdi-erdingaude, urte guzian eondugan lekutsun hain zuzen. Beraz, itxure guzie do erdipurdiko martxa hontan seittuko dula bukatu arte. Eta nik hoixe nahi, azken 3-4 partidutan minutuk jokatzeo aukera izanen doten esperantzan... ikusikou ze pasatzen den azkenen beño badazpada erne seitu beharkot eunerokolanen.

Gure Ligakin seittuz, etxeko hiru talde euskaldunen ibillera ai-patu nahi nuke. Realai dagokionez, daukean taldea eta presu-puestoa ikusita oso denboraldi txukune itten ai die eta lehen mailara igoko ez badiere merito handie dauka. Alaves berriz, zuloan sartue eonagatik kategoriri eusteko kapazitatie ikusten dot; halare, oso oso zalle daukeala onartu behar. Azkenik, Eibar kinka larrin

dau eta azken orduko ustekabe lantzatan bat pasatzen ez bada behintzat, zoritxarrez mailaz jetsiko da. Ikusten den bezela, balantzea nahiko kaxkarra da.

Hontaz aparte, aste hontan beste bi taldekidekin batea eskola batea bixitan joatea tokatu zait. Hortxe ibilli giñen 8-10 urteko ume sail baten hainbat galderai erantzunez. Gañea Nastikoko hainbat material oparitu giñizkioan (kamisetak, balonak, bufandak...) eta umek hain ilusionatuk ikusita banorbera re alaitsu itten dela ezin ukatu.

Nere egoerara bueltatuz, pertsonalki hain urte exkaxa (apenas jokatu dot) izaten ai dela kontutuan hartuz, datorren denboraldira beidetuz geo zalantzagarrie da. Talde aldatzeko behar, ikeragarritan kontue euki behar da nora joan. Izane, futbol taldeen erdik beño gehio sekuleko arazo ekonomiko larrikin dabilteza eta denbora luzez diruik kobratu gabe dauden jokalarin kasue gero ta normalagoa da zoritxarrez. Gure kasun, Nastik momentuz patu beharrekoa patzen ai da, nahiz eta atzeapenakin izan, eta asko baloratu beharreko gauze da hau. Denbok esanen do.

Azkenik, Abel Barriolai animoak biali nahi nizkiok hemendik. Belauneko lesio larrie jasan ondoren hillabete batzutan ezin izaneu bere jokoz gozatu pillotazalek. Ongi errekupeatzea desio diot.

## Leitzako pilotarien asteburuko partidak

A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolako gazteak Nafar Jokoetan, Gravn Torneoan eta Lizarrako, Herrerako eta Zaramagako Txapelketetan egon ziren asteburuan.

### Nafar Jokoak

Leitzan, Zubirin eta Iruñean jokatutuzten partidak Nafar Jokotan.

Joanes Illarregi-Ander Alduntzinek 18 eta 2 irabazi zuten; Gil-Garziarenak 18-0; Olano-Barbere-

nak 18-4 eta Iñaki Saralegi-Lenitz Galartzak 18-7. David Muenala-Jon Sukuntzak 9-18 galdu zuten, Mikel Eraso-Aimar Gilek 17-18 eta Xabier Eraso-Mikel Onsalok 11-18.

### Txapelketak eta Torneo

Gravn Torneoan Jaunarenak 22-4 irabazi zuten. Lizarrako Txapelketan Gartziaarena-Zubiriak 18-15 irabazi zuten. Herrerakoan Aldaregiak 12 eta 22 galdu zuten. Zaramagan Olano-Tolosak 18-11 irabazi zuten.

## Laburrak

### Tolosaldeko eta Leitzaldekoen emaitzak


**AIZKORA** • Urrezko Aizkolariaren Banakako Txapelketan eskualdeetako 3 aizkolari aritu dira lanean asteburu honetan. 23 urte azpikoetan Asteasuko Alkizalete II.ak galdu egin zuten Rodriguez II.aren aurka. 19 urte azpikoetan, bi leitzar aritu ziren elkarren aurka, Saralegi Olano gainditu zuelarik.

### Amaia Vazquezen hitzaldia ostiralean 15:00etan

**ARESO** • Guraso Elkarteak, Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin, Amaia Vazquezen hitzaldiak antolatu ditu hilaren 8an, ostiralean, eta 15ean. Famili barruko komunikazioa eta gurasoak izateko eredu ezberdinen inguruan hitz egingo du Amaia Vazquezen 15:00etatik 16:30era udaletxean.

### XIBA jokoetan lehen postua leitzarrentzat

**LEITZA** • XIBA Txapelketako bigarren saioa jokatu zen asteburuan Goizuetan. Bertan Leitzak irabazi zuen lehia, 117 puntu lortuarekin. Bigarren Etxarri-Aranatz gelditu zen, 6 puntutara. Sei talde nafar aritu ziren lanean eta guztira hamabi jokatari jardun behar izan zuten partaideek.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



15°  
8°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 20°  
HOTZENA 8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalal:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarain, Belautza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Maiatzaren 16an Arza-balza paperfabrikan lan egin zuten emakumeek bazkaria egin behar dute Alegiako Txintxarri jatetxean. Izen-ematea, 943 650721an.  
■ **Zizurkil.** Haur dantzari eta bertsolarien emanaldia Atxulondo kultur etxean 18:00etan.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Ligi - Santa Engrazi mendirte antolatatu du Alpino Uzturre elkarteak antolatatu du hilaren 10erako, Izarbe mendia igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5), 943 652789 edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com).

### Erakusketak

■ **Tolosa.** El Roto komikilaria *Agua tinta* erakusketa Aranburun, Tolosa Naturaldia jardunaldien barruan, maiatzaren 17ra arte.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Laskorain abesbatzak Graciako Els Picarols abesbatzarekin elkartrukea egin du, eta Bartzelona ezagutu dute; kontzertua eskaini aurretik eta ondoren, ahaztuko ez dituzten gauzak bizitu zituzten.

# Bartzelonan, etxean bezala



Graciako El Circlen abestu zuen Laskorain abesbatzak. Ekainaren bukaeran Els Picarols-ekoek bisitatuko dute Tolosaldea, Laskorain abesbatzako kideen etxeetan bazkalduz eta lo eginez. Tolosaldekoak desiatzen daude. HITZA

## A Agurrak




**Urte askoan!**

**Aroa (Tolosa).**

Gaur 4 urte.

Muxu potoloak Oihanen partetik.



**Urte askoan!**

**Mikel Aranalde Zabaltza.**

Gaur 4 urte. Muxu potoloak etxearen partetik.

### NEREA URBIZU

**B**artzelona ezagutzeko aukera baino gehiago izan zen Laskorain abesbatzarentzat joan den hiru eguneko asteburua. Els Picarols abesbatzarekin egin zuten elkartrukea eta ordura arte bizitu ez dituzten esperientziak izan zituzten. Ia dena zen berria; jendea, hango picarolek edo txintxarriek eskainitako kantak, lekua, klima...

Kataluniarren harrera oso beroa izan zen Tolosatik abiatutako taldearentzat. Hasiera-hasieratik

jatekorik ez zitzaizela falta izan eskaldunentzat, ezta atentzioa ere.

Askok Barçaren 2-6 partida ia historikoa ikusteko aukera ere izan zuten, eta baita ia astero futbol ona ikusteko aukera duten jarriztaile sutsu horien jarrera ere.

### Kontzertua «oso ondo»

Els picarols edo Bartzelonako txintxarriek abestu zuten lehenik, larunbatean, El Circlen bertan. Tolosaldeko neska Nairara Mintegiaren zuzendaritzapean, egia esan, urduri xamar ateraz ziren,

dena berria baitzen eurentzat. Taularatu, eta mugitzen hasi zirenean nerbio horiek pixka bat joan egin ziren, are gehiago katalanez abestutakoaren ondorengo txalo zaparrada entzun ostean. Oso txukuna ateraz zen dena. Baten batek egokitutako familiak eskatuta, etxean berri abestu behar izan zuela jakin du HITZAK.

Ranblatua izpiritua ere ezagutzeko aukera izan zuten gaztetxoek: eskerrak Tolosatik joandako lau irakasle zein laguntzaileei, baten bat bestela han geldituko zen...

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

villabonako amodiozko  
gutunen lehiaketa

2 0 0 9

Lanak aurkezteko azken eguna  
2009ko maiatzaren 13a izango da  
**Eskuratu oinarriak**  
Villabonako Euskara Zerbitzuan:  
943693501 - [euskara@villabona.net](mailto:euskara@villabona.net)  
edo [www.villabona.net](http://www.villabona.net) webgunean



Villabonako Euskara Zerbitzua  
euskara goxoa gurea  
egiozu hozka!